

<p><b>Ikasgaiaren izena</b> Kodea. Proiektua: Fikzioko praktika</p>	<p><b>ECTS kredituak</b> 6 ECTS Derrigorrezkoa</p>
<p><b>Ikasketa planean duen kokapena eta iraupena</b> HIRUGARREN MAILA - SEI HILEKOA</p>	<p><b>Modalitatea</b> Presentziala</p>
<p><b>Ikasleak ikasgai honekin bereganatuko dituen kompetentziak</b></p> <p><b>- Oinarrizko kompetentziak</b></p> <p>(Kodea)- Barneratutako ezagutza eta trebetasun teknikoak komunikazio testuinguru berrietara aplikatzea</p> <p>(Kodea) - Egoera konplexuei aurre egiteko ezagutzak eta prozedurak aplikatzea, simulatutako lan testuinguruetan</p> <p>(Kodea)- Lanak eta proiektuak modu akademikoan aurkeztea eta azaltzea, zenbait ikasle eta irakasleren aurrean, dagozkien komunikazio baliabideak behar bezala eta eraginkortasunez erabiliz</p> <p><b>- Zeharkako kompetentziak</b></p> <p>(Kodea)- Ekintzailtza eta berrikuntza (Kodea)- Talde lana (Kodea)- Ikasten ikastea (Kodea)- Espiritu kritikoa eta konpromiso etikoa</p> <p><b>- Kompetentzia espezifikoak:</b></p> <p>(Kodea) – Giza baliabideak, aurrekontu baliabideak eta baliabide teknikoak planifikatzea, koordinatzea eta kudeatzea, dokumental nahiz fikzioko obra baten ekoizpen faseetan</p> <p>(Kodea) – Fikzioko ikus-entzunezko obra baten sustapena eta zabalkundea antolatzea</p> <p>(Kodea) - Dokumentalen eta fikzioko produktuen eszenaratzea sortzea eta zuzentzea, aurreikusitako lan egitasmoarekin eta aurrekontuarekin bat etorrita, ikus-entzunezko produktuak lantzeko eta osatzeko teknika narratibo eta teknologiko egokiak erabiliz</p> <p>(Kodea)- Dokumentaletarako nahiz fikziorako testuak eta gidoiak sortzea eta egokitzea</p> <p>(Kodea) - Ikus-entzunezko kontakizunak aztertzea, ikus-entzunezko obrak aztertzeke oinarrizko parametroak aintzat hartuta, eta mezu ikonikoak garai historiko jakin bateko baldintza soziopolitiko eta kulturalen testutzat eta emaitzatzat harturik</p>	
<p><b>Ikasleak ikasgai honekin bereganatuko dituen ikaskuntza emaitzak</b></p> <p>Barneratutako narrazio eta argumentu ezagutzak aplikatzea dokumentalak eta fikzioko obrak lantzeko</p> <p>Barneratutako trebetasun teknikoak aplikatzea dokumentalak eta fikzioko obrak errodatzean eta editatzean sorturiko problemak ebazteko</p> <p>Dokumentalen eta fikzioko obren proiektuak sortzea eta antolatzea, simulatutako lan egoeretan, baldintza tekniko eta denbora baldintza jakin batzuk aintzat hartuta</p> <p>Ahozko komunikaziorako komunikazio estrategia egokienak baliatzea, azalpen eta aurkezpen zuzenak eta eraginkorrak egiteko</p>	

Dokumentalen eta fikzioko obren produkzioarako beharrezko giza taldea identifikatzea, eta taldeko kide bakoitzaren eginkizunak bereiztea  
 Dokumental nahiz fikzioko obra baten produkzio faseetan behar diren giza baliabideak koordinatzea  
 Dokumentalen eta fikzioko obren produkzioaren plangintza egitea, baliabide teknikoetara egokituta  
 Dokumentalak eta fikzioko obrak planifikatzea, aurreikusitako aurrekontu baliabideei egokituta  
 Fikzioko obra baten sustapenerako beharrezko materialak sortzea  
 Fikzioko obra bat zabaltzeko bide egokiak identifikatzea, obraren ezaugarrien arabera  
 Dokumentalen eta fikzioko obren produkzioarako gidoiak identifikatzea eta egokitzea, ikus-entzunezko genero bakoitzaren ezaugarriei egokiturik  
 Dokumentalak eta fikzioko lanak sortzea eta zuzentzea, eszenaratzeari erreparatuz (argiztapena, dekoratuak, aktore zuzendaritza)  
 Dokumentalak eta fikzioko obrak sortzea eta zuzentzea, dagozkien narrazio eta teknologia irizpideekin bat etorrira (espazioa, denbora, erritmoa, soinua eta diegesia)  
 Fikzioko kontakizun narratiboak egituratzeko eta osatzeko pertsonaiak eraikitzea  
 Ikus-entzunezko kontakizunak interpretatzea, garai historiko bakoitzaren ezaugarri soziopolitiko eta kulturaleri erreparatuz

### **Ikasgaiak profil profesionalari egiten dion ekarpena**

Ikasgai hau fikzioko proiektu bat sortzean datzanez, Ikus-entzunezko komunikatzailea, Produktorea, Diseinatzaile grafikoa, Gidoigilea eta Telebistako zuzendaria eta errealizadorea profiletarako beharrezko gaitasunak eskaintzen dizkie ikasleei.

### **Irakaskuntza-ikaskuntza metodologia, eta ikasleak bereganatu beharreko gaitasunekin duen harremana**

MT1. Eskola magistralak  
 MT2. Kasuak aztertzea  
 MT3. Problema ebaztea  
 MT4. Proiektuak

### **Prestakuntza jarduerak**

#### **Jarduera presentzialak**

JP1. Taldean bideratutako ikasketa eta lana, honako hauetan oinarrituta: kasuak, problema edo proiektuak, lan kooperatiboa...  
 JP2. Eskola magistralak/Hitzaldiak  
 JP3. Eskola praktikoak  
 JP4. Ahozko azalpenak  
 JP5. Tailerrak  
 JP6. Jarraipenerako tutoretzak  
 JP9. Aurkezpenak  
 JP10. Simulazioak/Rol jokoak

#### **Ez-presentzialak**

JEP2. Taldekako ikasketa eta lana

### **Ikasleak bereganatutako kompetentziak ebaluatzeko sistema**

EB1. Talde lanak  
 EB3. Azalpenak eta aurkezpenak  
 EB5. Prestakuntza jardueretara joatea eta horietan modu aktiboan parte hartzea

### **Edukien laburpena**

- Gidoi literarioa berridaztea. Nola hobetu kontakizun bat

- Ideiatik pantailara. Produkzioaren faseak, eta taldeko kide bakoitzak fase bakoitzean dituen eginkizunak
- Preprodukzioko produkzio lanak: gidoia xehakatzea, grabazio plana, aurrekontua, baimenak, lanen ordena
- Zuzendaria, preprodukzioan: gidoi teknikoak, lokalizazioak, antzezleak aukeratzea
- Fikzioa grabatzea: gutxieneko giza baliabideak eta baliabide teknikoak; argiztapena, soinua, errealizazio motak eta jarraitutasun narratiboa
- Postprodukzioa: erritmoa, elipsia, jarraitutasun narratiboa, musika, giro-soinua, irudiaren eta soinuaren tratamendua
- Proiektua sustatzea eta zabaltzea: wegunea, making of, trailerra, jaialdiak eta proiektu bakoitzaren araberako beste zabalkunde bide egoki batzuk identifikatzea